






Orona
fundazioa

JARDUERAREN
MEMORIA
MEMORIA DE
ACTIVIDADES
2014



Orona
fundazioa



AURKIBIDEA

ÍNDICE

01

AGURRA
SALUDA

📄 06

02

FUNDAZIOAREN
HELBURUEN AURKEZPENA
ETA GOBERNU-ORGANOA
PRESENTACIÓN FINES
FUNDACIONALES Y
ÓRGANOS DE GOBIERNO

📄 07

03

JARDUN-ESPARRUAK
ETA -EREDUA
ÁREAS Y MODELO
DE ACTUACIÓN

📄 08

04

BARNE-
GARAPENA
DESARROLLO
INTERNO

📄 10

- 04.1 Ideo factory
📄 10
- 04.2 Orona Unibertsitate
Korporatiboa (OUK)
Universidad Corporativa
Orona (UCO)
📄 12
- 04.3 Elikadura-proiektua
Proyecto alimentario
📄 14

05

KANPO-
GARAPENA
DESARROLLO
EXTERNO

📄 16






- 05.1 Erakunde-arlokoa
Institucional
📄 16
- 05.2 Nazioartekoa
Internacional
📄 17
- 05.3 Unibertsitate-arlokoa
Universitario
📄 18
- 05.4 Ingurukoa
(Orona Fundazioa Gizarterantz)
Entorno
(Orona Fundazioa Gizarterantz)
📄 19



06

KUDEAKETA GESTIÓN


20





- 06.1 Ekitaldien kudeaketa
Gestión de eventos
 20
- 06.2 Bisitak
Visitas
 21
- 06.3 Ateak zabaltzeko eguna
Puertas abiertas
 22
- 06.4 Kantina
Cantina
 24
- 06.5 Erakunde arteko
harremanak
Relaciones
institucionales
 25

07

PROIEKTUAK ETA JARDUEREN EGUTEGIA PROYECTOS Y CALENDARIO DE ACTIVIDADES

26

- 07.1 Euskara
 26
- 07.2 Prestakuntza-hitzaldiak
Conferencias formativas
 27
- 07.3 Menditour
Film Festival
 28
- 07.4 Ikastetxeen bisitak
Visitas centros
educativos
 29
- 07.5 Zinetek eta zinemagile
gazteen nazioarteko
topaketa
Zinetek y encuentro
internacional de
jóvenes cineastas
 30
- 07.6 Diametro 200
 32
- 07.7 Ezintasunen bat dutenen
kirolaren teknifikazioa
Tecnificación deporte
discapacitados
 34
- 07.8 Albaola - San Juan baleontzia
Albaola - nao San Juan
 34
- 07.9 Irrien lagunak
 36
- 07.10 Berrikuntza soziala
Innovación social
 36

- 07.11 Jarduera fisikoa
ikastetxeetan
Desarrollo de la actividad
física en centros educativos
 36
- 07.12 Oronarentzako kontzertua
eta zero ilara
Concierto Orona
y fila cero
 37
- 07.13 Mindy proiektua
Proyecto Mindy
 38
- 07.14 Zientziaren astea
Semana de la ciencia
 39

08

ERAKUNDEEN ZERRENDA LISTADO DE ENTIDADES

40

01

AGURRA SALUDA



Orona Ideo ORONA proiektu sozio-enpresarialaren partaide guztion ametsa da. 10 urte baino gehiago behar izan dira, bidean topatu diren oztopo desberdinak gaindituz, amets hau errealitate bihurtzeko. Zentzu honetan, bereziki eskertu nahi nituzke etengabe jaso ditugun laguntza pertsonal eta instituzionalak.

Orona Ideo munduari irekia dagoen begirada bat da, ezagutza sortzeko motore izateko helburuarekin lankidetzat inguruneen sorrera bultzatzen duen espazioa. Hau da azken finean guk etorkizunarekiko konprometua ulertzeko dugun modua.

Orona Ideo epe luzerako apustua da, eragile desberdinetan, unibertsitate arlokoak, zientifikoak, enpresa mundukoak eta gizartearen osotasunean, errotzen den aldaketa kulturalerako proposamena. Urte honetan zehar Orona Fundazioak martxan jarri dituen ekimenak Ideo Factory kontzeptuaren hasierako fasean kokatzen dira. Ideo Factory ekoizpen intelektualeko zentru bat da, bere aktibitatea alor desberdinetan egituratzen duena. Barne garapenaren alorrean, Orona Unibertsitate Korporatiboaren konfigurazioan lehenengo urratsak eman ditugu. Eta ingurunearen garapenaren alorrean, gure ingurutik hurbilen kokatzen diren ikasketak -zentru eta gizarte-eragileekin elkarlana bultzatu da.

Azaldutako testuinguru honetan, memoria honen bitartez Orona Fundazioak bultzatu dituen ekimenen partehartzaile egin nahi zintuzket.

Eskerrik asko zure interesa eta elkarlanagatik.

Elkarrekin urrunago

Xabier Mutuberria
Oronako Zuzendari Nagusia

Orona Ideo es un sueño colectivo de los integrantes del Proyecto Socio-empresarial ORONA, cuya gestación ha llevado más de 10 años de andadura, y que a lo largo de la misma ha ido salvando diferentes obstáculos, pero en especial quiero agradecer los permanentes apoyos que ha recibido, tanto personales como institucionales.

Orona Ideo es una mirada abierta al mundo, un espacio de contribución que pretende el desarrollo de entornos colaborativos como motor de generación de conocimiento, es en definitiva nuestra manera de entender nuestro compromiso con el futuro.

Orona Ideo es una apuesta a largo plazo, una propuesta de cambio cultural apalancada en los diferentes agentes, universitarios, científicos, empresariales y la sociedad en su integridad. Las iniciativas puestas en marcha por Orona Fundazioa este año, se enmarcan en la fase embrionaria del concepto Ideo Factory, entendido como un centro de producción intelectual que estructura su actividad en ámbitos diferentes. En el ámbito del desarrollo interno, desde la perspectiva intramuros, iniciando el camino hacia la configuración de la Universidad Corporativa Orona. Y en el ámbito del desarrollo comunitario incidiendo sobre el entorno más próximo, con los Centros Educativos y los Agentes Sociales como pivotes.

En este contexto, Orona Fundazioa, ha promovido actividades de las cuales me es muy grato hacerte participe y de las que en la presente memoria encontrarás información detallada.

Gracias, por tu interés y colaboración.

Juntos, llegamos a más

Xabier Mutuberria
Director General de Orona

02

FUNDAZIOAREN HELBURUEN AURKEZPENA ETA GOBERNU ORGANOA PRESENTACIÓN FINES FUNDACIONALES Y ÓRGANOS DE GOBIERNO



Estatutuen arabera, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da Fundazioa, eta honako hau da haren helburua: gizartearen beharren bilakaerarekin bat, hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak sustatzea jakintza-arlo guztietan.

Fundazioak baditu beste helburu batzuk: gizarte-ekonomia sustatzea eta babestea, kooperatibismoaren ezaugarriak ezagutaraztea, laneratzea bultzatzea eta kultura-, gizarte-, ongintza- eta laguntza-arloko nolanhiko jarduerak babestea.

Fundazioaren bitartez, gizartearekin duen konpromisoa sendotu nahi du ORONAK, hura hezkuntza-, eskualde-, erakunde- eta ikerketa-arloan eta nazioartean garatzeko funtsezko oinarriak sustatuz.

De acuerdo con lo previsto en los estatutos fundacionales, la Fundación tiene como fin la realización, sin ánimo de lucro, de todas aquellas actividades e iniciativas tendentes a promover y fomentar acciones en materia de educación, formación e investigación en todas las áreas del conocimiento en consonancia con la evolución de las necesidades de la sociedad.

La Fundación tiene como fin la promoción y apoyo de la economía social y la difusión de las características del cooperativismo, la promoción de la inserción profesional así como el apoyo de toda clase de actividades culturales, sociales, benéficas o asistenciales.

A través de la Fundación, ORONA pretende reforzar su compromiso con la sociedad fomentando los pilares básicos para su desarrollo educativo.

Honako hauek dira Patronatuko kideak:

- > Lehendakaria:
Igogailu eta Hiri Mugikortasun Sistemen Dibisioko Kontseilu Errektoreko lehendakaria
- > Lehendakariordea:
Igogailu eta Hiri Mugikortasun Sistemen Dibisioko Kontseilu Errektoreko lehendakariordea
- > Idazkaria:
Igogailu eta Hiri Mugikortasun Sistemen Dibisioko Kontseilu Errektoreko idazkaria
- > Erakunde-patronoak: Igogailu eta Hiri Mugikortasun Sistemen Dibisioko Kontseilu Errektoreko kideak (7)
- > Korporazio-patronoak: Igogailu eta Hiri Mugikortasun Sistemen Dibisioko Zuzendaritza Kontseiluko kideak (5)
- > Batzorde Betearazlea:
Lehendakaria, Idazkaria eta lau batzordekidek osatzen dute.

El Patronato responde a la siguiente composición:

- > Presidente:
Presidente del Consejo Rector de la División de Sistemas de Elevación y Movilidad Urbana
- > Vicepresidente:
Vicepresidente del Consejo Rector de la División de Sistemas de Elevación y Movilidad Urbana
- > Secretario:
Secretario del Consejo Rector de la División de Sistemas de Elevación y Movilidad Urbana
- > Patronos Institucionales, todos vocales (7) del Consejo Rector de la División de Sistemas de Elevación y Movilidad Urbana
- > Patronos Corporativos, miembros (5) del Consejo de Dirección de la División de Sistemas de Elevación y Movilidad Urbana
- > La Comisión Ejecutiva esta formada por:
El Presidente, el Secretario y cuatro vocales.

03

JARDUN-ESPARRUAK ETA -EREDUA ÁREAS Y MODELO DE ACTUACIÓN

Inguruko gizarteari garatzen laguntzea eta parte hartzea da Orona Fundazioaren helburua, gizarteari on egiten diona ona delakoan ORONArentzat berarentzat ingurunearekiko duen konprometua berrituz.

Ingurua hainbat alorretan garatzea da Orona Fundazioaren asmoa: sozioekonomiaren, kulturaren, hezkuntzaren, gizartearen eta kirolaren alorretan. Horretarako, eredu proaktibo bat du oinarri, gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko proiektuetan oinarritua, eta bere azpiegiturak, harremanak, giza kapitala eta, beharrezkoa bada, funts-bilketa jartzen ditu.

Barne-zerbitzua eman nahi duen aldetik, ORONAko giza kapitalaren garapen integrala da Orona Fundazioaren beste helburu nagusia. Ildo horretan, prestakuntza egituratzeko aukera bat da Fundazioa —egun, existitzen da dagoeneko—, eta, epe motzean, barne-Bezeroaren eskura jartzen ditu prestakuntza-zerbitzu operatiboak. Aurrerago Oronaren Unibertsitate Korporatibo bat antolatzen laguntzeko pausoa da hori.

Arlo bakoitzean finkatutako helburuak lortzen laguntzeko ekimen zehatzen inguruan ardatzen da Fundazioaren lan-ildo bakoitza.

Ildo bakoitzaren esparruan, bada Orona Fundazioak jardunerako beharrezko baliabideak jartzeko edo erakartzeko eredu bat.

Kanpo- zein barne-helburuen ikuspegi orokorra izanik zuzentzen dugu Orona Fundazioa, koherentzia emateko haren funtzionamenduari.

El fin de Orona Fundazioa es contribuir y participar proactivamente en el desarrollo de la sociedad que la rodea, entendiendo que lo que es beneficioso a dicha sociedad lo será para la propia ORONA y esto le permitirá renovar su compromiso con el entorno.

Orona Fundazioa pretende desarrollar su entorno en términos socio-económicos, culturales, educativos, sociales y deportivos, en base a un modelo proactivo, basado en desarrollo de proyectos en colaboración con los agentes sociales, aportando su infraestructura, capacidad relacional, capital humano y la captación de fondos si fuera necesario.

En su vocación de servicio interno el desarrollo integral del capital humano de ORONA es el otro gran objetivo de Orona Fundazioa, para ello, la fundación se presenta como una oportunidad para la estructuración de la formación, que a día de hoy ya existe, aportando en el corto plazo los servicios operativos de formación, a su Cliente interno, contribuyendo así al desarrollo de la configuración de una Universidad Corporativa Orona.

Cada línea de trabajo de la fundación se desarrolla en torno a iniciativas concretas que cumplen los objetivos definidos en cada ámbito.

En cada línea se fija el modelo con el que la Fundación Orona aporta o capta los recursos con los que desarrollará su actividad.

La Fundación Orona se gobierna con una visión global de los objetivos tanto externos como internos de la misma, dotando de coherencia a su funcionamiento.

Ingurua hainbat alorretan garatzeko konpromisoarekin eta izaera ireki batekin jaio da Orona Fundazioa: sozioekonomiaren, kulturaren, hezkuntzaren, gizartearen eta kirolaren alorretan.

Orona Fundazioa nace abierta y comprometida con el desarrollo de su entorno en términos socio-económicos, culturales, educativos, sociales y deportivos, en base a un modelo proactivo.

BARRURA BEGIRA
EGITEN DUGU LAN
TRABAJAMOS
HACIA DENTRO

INGURURA BEGIRA
EGITEN DUGU LAN
TRABAJAMOS
HACIA EL ENTORNO



04

BARNE-GARAPENA DESARROLLO INTERNO

04.1

IDEO FACTORY

IDEO FACTORY

Betidanik, elkarlanean aritzeko inguruneen alde egin du ORONAK, jakintza sortzeko. Bada, eredu hori sendotzeko sortu da Orona Ideo.

Teknologiari begiratzen dioten unibertsitateek ikertu egiten dute, ezaupide berriez jabetzeko eta haiek produktu, prozesu eta zerbitzu berrietan baliatzeko.

Teknologia-zentroak, berriz, ikerketa aplikatuaren aroko liderrak dira, frogatzeko zientzia aplikagarria dela eta produktu eta prozesuak berritzeko gai dela.

Enpresak, azkenik, emaitzak produktu eta prozesuen berrikuntza bihurtzen dituen industria aurreko ikerketaren lider dira, eta emaitzak industrializatzea eta berrikuntza barneratzea ziurtatzen dute.

Orona Fundazioak aurten abian jarritako ekimenak Ideo Factory kontzeptuaren hasierako fasean daude. Ekoizpen intelektualeko zentro bat da Ideo Factory, eta lau alorretan egituratzen du jarduna.

Lehenik, **barne-garapenaren** alorrean, Orona Fundazioaren jardura guztiak biltzea du helburu, barne-ikuspegitik. Ikuspegi horretatik, bi garapen-arlo nagusi zehaztu ditugu: digitalizazioa eta unibertsitate korporatiboa.

Bigarrenik, **komunitatearen garapenaren** alorrean, inguru hurbilean eragina izan nahi du, ikastegien eta gizarte-eragileen bitartez, boluntarioak ardatz.


Hirugarrenik, **liburutegian, hezkuntza-arloko eta inguruko garapenaren** alorrean, ezaupideak sortzeko jarduerak egiten ditugu, eta bi zerbitzu-sail nagusi daude: jarduerak eta baliabideak.

Azkenik, **enplegarritasunaren** alorrean, enplegarritasunak hezkuntza bidezko garapena hobetzen duen aldetik, ORONAKo enplegu-bulegoak profesionalki lan egiteko aukerak ematen dizkie ikasleei, haien prestakuntza osatzeko: praktikak eta ikerketa.



Betidanik, elkarlanean aritzeko inguruneen alde egin du ORONAK, jakintza sortzeko.

ORONA ha apostado históricamente por el uso de entornos colaborativos como manera de generación de conocimiento.



ORONA ha apostado históricamente por el uso de entornos colaborativos como manera de generación de conocimiento. Para potenciar este modelo se crea Orona Ideo.

Las Universidades con orientación tecnológica desarrollan actividades de investigación cuya finalidad es la adquisición de nuevos conocimientos que puedan ser útiles en nuevos productos, procesos o servicios.

Los Centros Tecnológicos lideran la etapa de Investigación Aplicada con el objetivo de demostrar la aplicabilidad de la ciencia y su capacidad para innovar productos y procesos.

Las Empresas lideran la Investigación Preindustrial que transforma los resultados en innovación de productos y procesos, y aseguran la industrialización de los resultados y la interiorización de la innovación.

Las iniciativas puestas en marcha por Orona Fundazioa este año, se enmarcan en la fase embrionaria del concepto Ideo Factory. Ideo Factory es un centro de producción intelectual que estructura su actividad en cuatro ámbitos diferentes.

El ámbito del **desarrollo interno** pretende recoger en su integridad las actividades de Orona Fundazioa desde la perspectiva intramuros. Basándonos en la visión intramuros, se han identificado dos grandes áreas de desarrollo, la Digitalización y la Universidad Corporativa.

El ámbito del **desarrollo comunitario** pretende incidir sobre el entorno más próximo, con los Centros Educativos y los Agentes Sociales con el Voluntariado como pivote.

La **biblioteca**, desde su encuadre en el **desarrollo educativo y del entorno**, será un centro de actividad generadora de conocimiento. La biblioteca dispondrá de dos grandes áreas de servicios: Actividades y Recursos.

Empleabilidad, como enriquecimiento del desarrollo educativo, la oficina de empleo de ORONA facilitará diferentes oportunidades de trabajo en el ámbito profesional que adicionalmente contribuirán a la formación de los estudiantes: Prácticas e Investigación.



04.2

**ORONA UNIBERTSITATE
KORPORATIBOA (OUK)
Prestakuntza**

**UNIVERSIDAD CORPORATIVA
ORONA (UCO)
Formación**

ORONari zerbitzu egin nahian, langileei osotasunean garatzen laguntzea da fundazioaren helburuetako bat. Izan ere, pertsonak dira haren gizarte- eta enpresa-proiektuaren palanka nagusietako bat, eta estrategia horren euskarria da Orona Fundazioa.

Merkatuaren beharrei aurre egiteko, Orona Fundazioa garrantzitsua da ORONA osatzen duten pertsonen garapenean, eta aberastasun pertsonala, gaikuntza profesionala, eredu aurreratuak eta balio kooperatiboak sustatzen ditu.

Prestakuntza-plan integral egituratu batek erantzuten dio erronka horri, eta Korporazioko Kudeaketa Sozialeko Sailak pertsonak garatzeko ezarritako politikak marrazten du. Ildo horretan, 2014an, Orona Suite prestakuntza-programa babestu du Orona Fundazioak.

Honako eginkizun hauek bete ditu fundazioak prestakuntzaren alorrean:

- 1.- Prestakuntza-jarduerak ematea.
- 2.- Prestakuntza-jardueren jarraipena egitea.
- 3.- Jarduerak ebaluatzea.
- 4.- Kudeaketa Sozialeko Sailari informazioa ematea.
- 5.- Diru-laguntzei buruz aholkatzea.

En su vocación de servicio a ORONA la fundación tiene el objetivo de colaborar en el desarrollo de sus trabajadores, con una perspectiva integral. Las personas componen una palanca principal de su proyecto socio-empresarial. Y Orona Fundazioa se presenta como soporte de esta estrategia.

Con la finalidad de hacer frente a las necesidades del mercado, Orona Fundazioa será una pieza importante en el desarrollo de las personas que forman ORONA, incentivando el enriquecimiento personal, la capacitación profesional, modelos avanzados y los valores cooperativos.

Un plan de formación integral estructurado dará respuesta a este reto. Dicho plan vendrá dibujado por la política de desarrollo de personas que se establecerá en el departamento de Gestión Social Corporativa. En concreto en 2014, Orona Fundazioa ha dado cobijo al proyecto formativo Orona Suite.

Los cometidos de Orona Fundazioa en materia de Formación, han sido:

- 1.- Impartición de las acciones formativas.
- 2.- Seguimiento de las acciones formativas.
- 3.- Valoración del desarrollo de las acciones.
- 4.- Reporte a Gestión Social.
- 5.- Labor de asesoría en materia de subvenciones.

Honako hauek izan dira Orona Suite proiektuaren barruko ikastaroak:
Los cursos “Orona Suite” realizados han sido los siguientes:

IKASTAROAREN IZENA NOMBRE DEL CURSO	PARTE-HARTZAILEAK ASISTENTES	ZK. Nº	ORDUAK HORAS	DATAK FECHAS
Orona Suite OEEE (Hasierako Saioa eta Negozioaren Ikuspegia) Orona Suite OEEE (Sesión Inicial y Visión de Negocio)	Orona Enpresak, Asgi, Balear, Sanchezmar eta Ga-lo Orona Empresas, Asgi, Balear, Sanchezmar y Ga-lo	93	1.232	Urtarrila Enero
Orona Suite OEEE (Hasierako Saioa eta Negozioaren Ikuspegia) Orona Suite OEEE (Sesión Inicial y Visión de Negocio)	Orona Enpresak, Cosecan, Bayfer, Caas eta Burgasdiher Orona Empresas, Cosecan, Bayfer, Caas y Burgasdiher	53	656	Otsaila Febrero
Orona Suite Finantzarioak Orona Suite Financieros	Orona Enpresak eta Motorrak Orona Empresas y Motores	11	352	Otsaila Febrero
Orona Suite EV (Hasierako Saioa eta Negozioaren Ikuspegia) Orona Suite EV (Sesión Inicial y Visión de Negocio)	Electra Vitoria	49	536	Mayo Maiatza
Orona Suite Fin. SAP (OEEE+EV)	Orona Enpresak eta Electra Vitoria Orona Empresas y Electra Vitoria	46	552	Maiatza-Ekaina Mayo-Junio
Orona Suite Pécres (Hasierako Saioa eta Negozioaren Ikuspegia) Orona Suite Pécres (Sesión Inicial y Visión de Negocio)	Pécres	61	824	Ekaina Junio
Orona Suite Fin. SAP (Pécres)	Pécres	4	96	Iraila Septiembre
Orona Suite SP Aurrekoa Orona Suite SP Previo	Orona S. Coop.	9	216	Iraila-Urria Sept.-Oct.
Orona Suite R4 Aurrez Aurrekoa (GOZ) Orona Suite R4 Presencial (GOZ)	Orona S. Coop.	279	3.512	Azaroa Noviembre
Orona Suite R4 Aurrez Aurrekoa (OEEE) Orona Suite R4 Presencial (OEEE)	Orona Enpresak Orona Empresas	33	488	Azaroa Noviembre
Orona Suite R4 Aurrez Aurrekoa Orona Suite R4 Presencial EV	Electra Vitoria	3	40	Azaroa Noviembre
Orona Suite R4 Aurrez Aurrekoa Export Orona Suite R4 Presencial Export	Orona S.Coop. eta Motorrak Orona S.Coop. y Motores	50	520	Abendua Diciembre
ORONA SUITE PRESTAKUNTZA, GUZTIRA TOTAL FORMACIÓN ORONA SUITE		691	8.988	2014. URTEA AÑO 2014

Beste ikastaro batzuk:
Otros cursos celebrados:

IKASTAROAREN IZENA NOMBRE DEL CURSO	PARTE-HARTZAILEAK ASISTENTES	ZK. Nº	ORDUAK HORAS	DATAK FECHAS
Merkataritza Kudeaketa GI-BI Formación Gestión Comercial GI-BI	Orona S.Coop (GOZ)	17	136	Urtarrila Enero
Gizarte Kontseiluaren Prestakuntza Formación Consejo Social	Orona S.Coop.	44	352	Otsaila Febrero
PRL prestakuntza Formación PRL	Orona S.Coop.	12	429	Martxoa-Ekaina Marzo-Junio
Bibroakustikako prestakuntza Formación Vibroacústica	EIC	12	288	Apirila Abril
Cognos Planning prestakuntza Formación Cognos Planning	Finantzarioa Financiero	3	72	Ekaina Junio
Donostiako suhiltzaileen prestakuntza Formación Bomberos Donostia	Donostiako suhiltzaileak Bomberos Donostia	16	80	Urria Octubre
Mecfor (RIS) Probak prestakuntza Formación Mecfor (RIS) Pruebas	Finantzarioak Financiero	14	616	Urria -Azaroa. Oct.-Nov.
BESTE PRESTAKUNTZA-IKASTARO BATZUK GUZTIRA TOTAL OTROS CURSOS FORMACIÓN		118	1.347	2014. URTEA AÑO 2014

Laburpen orokorra:
Resumen global:

IKASTARO MOTA TIPO DE CURSO	PARTE-HARTZAILEAK ASISTENTES	ZK. Nº	ORDUAK HORAS	DATAK FECHAS
Orona Suite Prestakuntza Formación Orona Suite	Orona S.Coop, Orona Enpresak, Electra Vitoria, EIC eta Korporazioa Orona S.Coop, Orona Empresas, Electra Vitoria, EIC y Corporación			2014. urtea Año 2014
Beste prestakuntza-ikastaro batzuk Otros Cursos Formación	Orona S.Coop, EIC, Korporazioa eta Kanpokoak Orona S.Coop, EIC, Corporación y Externos			2014. urtea Año 2014
PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK GUZTIRA TOTAL CURSOS FORMACIÓN		809	10.381	2014. URTEA AÑO 2014

04.3

ELIKADURA-PROIEKTUA Erantzunkizun sozial korporatiboa PROYECTO ALIMENTARIO Responsabilidad Social Coporativa

Oronak Ideon ematen duen jangela-zerbitzuaren kudeaketak bi helburu ditu: batetik, langile eta bisitariei elikagai osasungarriak ematea eta, bestetik, landa-munduaren garapena eta gizarteratzea sustatzeko traktorea izatea lekuko enpleguan oinarritutako enpresa-ekimen jasangarri baten bitartez.

XEDEA ETA IKUSPEGIA.

Orona Ideoko instalazioetan elikadura-zerbitzu on, garbi eta bidezkoa ematea da proiektu honen xedea:

Ona, eskaintza alde organoleptikotik ona, lehen mailakoa eta tokikoa den aldetik.

Garbia, elikagaiak eskuz, tradizioari jarraituz eta lurra, itsasoa eta airea errespetatuz eta kutsatu eta animalia edo landare transgenikorik erabili gabe lantzen diren aldetik.

Azkenik, **bidezkoa**, nekazari, abeltzain eta arrantzaleek bidezko prezioa kobratzen duten aldetik.

Zerbitzu hau martxan jartzearekin batera, kafetegi-zerbitzu bat jarri dugu martxan, beste erabiltzaile batzuentzat: Orona Fundazioko unibertsitate-graduetako irakasle eta ikasleentzat, A3 Research eraikinean lan egiten duten ikertzaileentzat eta Orona Ideora etortzen diren guztientzat.

Gainera, inguru hurbilean aberastasuna sortzeko proiektu bat ekarriko du Orona Fundazioak sortu duen elikadura-ereduak, fundazioaren xedearen muinean.

OINARRIZKO IDEIAK ETA ERAGILEAK.

Honako hauek dira oinarrizko bi ideiak:

1. ORONAK elikagai natural eta osasungarriak emango dizkie langileei, eta, filosofia horren barruan, lehentasuna izango dute sasoiko eta inguruko produktuei; batez ere, ekologikoki ekoizitakoak. Eredua bat dator Orona Ideorekin, berrikuntza- eta jasangarritasun-gunea baita hura ere.

2. Inguruko landa-garapenean lagunduko du ORONAK, enplegua finkatuz eta sortuz sektore horretan, lehentasuna emango baitie tokiko eta eskualdeko produktuei. Azken batean, aberastasuna sortuko du inguruan, fundazioaren helburuekin bat.

Gure Elikagai kudeatzen ari da "kantina". Federico Pacha Goikoetxea eta Lur Lan ekoizle txikien elkarteak dira sozietateko akziodunak. Batetik, Pachak bide luzea egin du sektorean, eta Sukaldaritzako diplomaduna da, baita Dietetika eta Nutriziokoa ere.



Bestetik, Lur Lan Baserritar Elkarteak Euskal Herriko nekazaritzako elikagaien ekoizleen elkarte bat da, eta 1997an sortu zen: orduan, hainbat ekoizle bat egin zuten, beren produktuak kontsumitzaileei zuzenean helarazteko eta batera merkaturatzeko eta banatzeko. Gaur egun, 40 bazkide baino gehiago biltzen ditu elkarteak, eta nekazaritzako elikagaien 84 ekoizle txiki ere, filosofia beraren barruan.

Hasiera batean, 600 baserritar-familia ziren Orona Ideorako elikagaiak ekoiztekoak. Pixkana-pixkana, hornitzaile-sarea osatuko dugu, ekoizle berriak eta hiriko baratze edo landa-auzune txikiak gehituta.

Inguruko landa-garapenean lagunduko du ORONAK, enplegua finkatuz eta sortuz sektore horretan, lehentasuna emango baitie tokiko eta eskualdeko produktuei.

ORONA, colaborará con el desarrollo rural de su entorno, consolidando y creando empleo en este sector, al primar productos de origen local-regional.



La gestión de la restauración de Orona en Ideo, cumple un doble objetivo. Por un lado, alimentar de manera sana y saludable a empleados y visitantes, y por otro ser un elemento tractor generador de desarrollo para el mundo rural y de la inserción social mediante la gestión de una iniciativa empresarial sostenible basada en empleo local.

MISIÓN Y VISIÓN.

La misión de este proyecto es ofrecer en las instalaciones de Orona Ideo un servicio de alimentación bueno, limpio y justo.

Bueno en cuanto a que la calidad de lo ofertado sea organolépticamente buena, de primera calidad y local.

Limpio se refiere a que el alimento esté trabajado de una manera artesanal, tradicional y respetando la tierra, mar y aire, no contaminando ni usando animales ni plantas transgénicas.

Y por último **justo** significa que los agricultores, ganaderos y pescadores cobren un precio justo por su trabajo.

El inicio de este servicio, ha supuesto la puesta en marcha, igualmente, de un servicio de cafetería abierto a otros usuarios, tales como profesores y alumnos de los grados universitarios, sitos en Orona Fundazioa, investigadores que desarrollarán su labor en el edificio A3 Research, y a todos aquellos visitantes que acudan a Orona Ideo.

Orona Fundazioa, ha ideado un modelo alimentario, que supondrá, además, la creación de un proyecto de generación de riqueza para su entorno más cercano, que se encuadra en el centro de la misión de dicha fundación.

IDEAS BÁSICAS Y ACTORES.

Las dos ideas de base son las siguientes:

1. ORONA proporcionará una alimentación a sus empleados natural y saludable. Esta filosofía prima los productos de temporada y de origen geográfico próximo, e idealmente de producción ecológica. Este modelo se adecua al espacio innovador y sostenible que es, Orona Ideo.
2. ORONA, colaborará con el desarrollo rural de su entorno, consolidando y creando empleo en este sector, al primar productos de origen local-regional. En definitiva generando riqueza en su entorno, como lo prevé en sus objetivos la Fundación.

La “cantina”, está siendo gestionada por Gure Elikagai, sociedad participada por Federico Pacha Goikoetxea y la asociación de pequeños productores Lur Lan. Pacha es un profesional con larga trayectoria en el sector, diplomado en Cocina así como en Dietética y Nutrición.

Por otro lado, Lur Lan Baserritar Elkarte, es una asociación de productores agroalimentarios de Euskal Herria. Se creó en 1997 cuando un grupo de productores, se unieron con el objetivo de hacer llegar sus propias producciones directamente al consumidor, y con la intención de efectuar la comercialización y la distribución de sus productos de forma conjunta. Actualmente en Lur Lan se encuentran más de 40 socios-productores y hasta 84 pequeños productores agroalimentarios asociados dentro de la misma filosofía.

En base a Lur Lan de partida, 600 familias de “baserritarras” o agricultores producirían alimentos para dar de comer en Orona Ideo. La red de proveedores de ORONA se irá completando con nuevos productores y con huertas urbanas o agroaldeas.

05

KANPO- GARAPENA DESARROLLO EXTERNO



05.1

ERAKUNDE-ARLOKOA INSTITUCIONAL

Erakunde-arloan garatzeko lan-ildoak jorratzeko, elkarlanean aritzen gara Estatuko, eskualdeko eta tokiko erakundeekin:

- > Administrazio publikoekin (aldundiekin, udalekin, ministerioekin...).
- > Enpresa- eta profesional-elkarteekin (merkataritza-ganbarekin, elkargo profesionalekin eta abarrekin).
- > Enpresekin.
- > eta abarrekin.

Erakunde horiekin guztiekin elkarlanean, Orona Fundazioaren helburuekin bat datozen proiektuak jartzen ditugu martxan.

- > Partzuergo publiko eta pribatuak sustatzea.
- > Lurraldearen traxzioa eta zabalkundea sustatzea.
- > Europako esparru-programetan laguntzea eta parte hartzea.
- > Azterketa sozioekonomikoetan parte hartzea.
- > Esperientziak beste alor batzuetakoekin kontrastatzea.
- > etab.

Dagoeneko jarri gara Gipuzkoako lurralde historikoan alor horietan lan egiten duten erakundeekin harremanetan (patronalarekin, merkataritza-ganbarearekin, garapen-agentziekin...), eta Orona Fundazioa aurkeztu diegu. Azken batean, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana gero eta beharrezkoagoa da lurraldea eta herrialdea garatzeko.

La línea de trabajo de Desarrollo Institucional se desarrolla estableciendo relaciones de cooperación con instituciones de ámbito nacional, regional y local:

- > Administraciones públicas (diputaciones, ayuntamientos, ministerios, etc.).
- > Agrupaciones empresariales y profesionales (cámaras de comercio, colegios profesionales, etc.).
- > Empresas.
- > etc.

La cooperación con estas instituciones deberá poner en marcha proyectos en sintonía con los objetivos de la Fundación Orona.

- > Impulsando consorcios públicos y privados.
- > Fomentando la tracción y difusión del territorio.
- > Contribuyendo y participando en programas marco europeos.
- > Participando en estudios socio económicos.
- > Realizando un contraste de experiencias con otros ámbitos.
- > etc.

Se han realizado ya un primer contacto y presentación de Orona Fundazioa a entidades (patronal, cámara de comercio, agencias de desarrollo, etc.) de esta naturaleza que operan en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. La colaboración público-privada, se adivina, cada vez más, como una herramienta imprescindible, para el desarrollo del Territorio y del País.

05.2

NAZIOARTEKOA INTERNACIONAL

Nazioartean garatzeko lan-ildoak bere egiten ditu erakunde-arloan garatzeko lan-ildoko helburuak eta metodologia, eta nazioartean aplikatzen ditu.

Alor honetan, Europako zer herrialdetan dagoen ORONA, haiek dira lan-ildo honen funtsezko ardatza.

Hasteko, Frantziako Lanbide Heziketako zenbait ikastetxerekin harremanetan jarri gara, igogailu-sektoreko ikasketak sustatzeko hitzarmen bat adosteko (zehazki, Batxilergo teknikoari garrantzia emateko, "igogailugile" aipamena gehituta), eta espero dugu lankidetzatza-hitzarmenak sinatuko ditugula 2015ean.

Bestalde, Millenium proiektuaren barruan, Ljubljana-ko Foroan parte hartu dugu. Orona Fundazioa nazioartean ezagutarazteko lehenengo esperientzia izan da (zehatz-mehatz, Orona Fundazioa Balkanetako eragileei ezagutaraztekoa), eta, horri esker, Orona Ideo aurkeztu dugu, berrikuntza-ekosistema gisa ez ezik, baita ORONAREN beraren laborategi gisa ere, etorkizuneko hirien nazioarteko foro batean: gauzatutako smart city txiki bat. Hartara, nazioarteko esperientzia berri bati heldu diogu, honako hau helburu: Europako eragileekin harremanetan jartzea, etorkizuna gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik jasagarria izateko konpromisoaren ildoan; harreman horiek ehunduz, sare bat jostea; eta, haren bidez, smart cityentzako soluzio industrialen nazioarteko foro bat garatzea Orona Ideon, zeinetan Korporazioak parte-hartze esanguratsua izango duen. Azkenik, Arrow-Head nazioarteko ikerketa-proiektuaren barruko bilera antolatzen lagundu du Orona Fundazioak, ORONA kide baita.

-


La línea de trabajo de Desarrollo Internacional recoge los objetivos y metodología de la línea de Desarrollo Institucional, aplicándolos dentro del ámbito internacional.

La vocación fundamental del Desarrollo Internacional estará centrado en los países de Europa en los que ORONA tiene presencia.

Se han establecido unos primeros e incipientes contactos, con centros de formación profesional franceses, de cara a concertar un convenio para la promoción de estudios del sector de elevación, en concreto se pretende poner en valor el bachillerato técnico con mención "ascensorista". Se espera poder establecer convenios de colaboración durante el año 2015.

La presencia en el Foro de Liubjiana, dentro del proyecto Millenium, ha sido una primera experiencia, para dar a conocer Orona Fundazioa en el ámbito internacional. En este caso, ante agentes de los Balcanes. Esta actividad permitió presentar Orona Ideo, bajo el concepto no solo de ecosistema de innovación si no, incluso como de laboratorio para la propia ORONA. Orona Ideo se presenta como una realidad de pequeña Smart City, en un foro internacional de ciudades del futuro. Se inicia así una experiencia internacional que pretende tejer relaciones con agentes europeos, implicados en un futuro sostenible, en términos sociales, económicos y medioambientales. La idea es tejer una red que permita, potencialmente, desarrollar un foro internacional de soluciones industriales para Smart Cities, en Orona Ideo donde nuestra corporación tenga una presencia relevante. Orona Fundazioa ha colaborado en la organización de la reunión del proyecto internacional de investigación Arrow-Head, del cual forma parte ORONA.





05.3

UNIBERTSITATE-ARLOKOA

Fakultateen Fakultatea

UNIVERSITARIO

Facultad de Facultades

Hezkuntza-arloan garatzeko lan-ildoaren helburua unibertsitate-munduarekin harremanetan egotea da, honako bereizgarri paregabe hauek dituen proiektu bat garatuz:

- > Fakultate-eredu tradizionalarekin haustea eta jakintza-arlo bat baino gehiago nahasten dituen gune bat eratzea.
- > Lan-munduarekin nahastea, ikasketak lan-munduan aplika daitezkeela ziurtatuta.
- > Estatuko zein nazioarteko hainbat unibertsitate eta hezkuntza-erakundetako esperientzia eta ereduak bateratzea.
- > Etengabe gaitzeko eredu bat finkatzea, pertsonak langile-bizitza osoan prestatzen direla ziurtatzeko.

2014ko irailean, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak (Mondragon Unibertsitateak) Orona Ideon ematen dituen graduetak bigarren promozioa sartu zen. Egun, honako hauek dira ikasleen kopuruak:

Ikastaroaren izena	Ikasleak
Energia 1. maila	52
Energia 2. maila	49
Ekoteknologiak 1. maila	22
Ekoteknologiak 2. maila	18
Guztira	141

Gainera, badira beste 20 ikasle, Proiektuak Kudeatzeko Masterrean parte hartzen ari direnak.

Bestalde, beste unibertsitate eta hezkuntza-proiektu batzuekin harremanetan egon gara, ORONAre ingurune jakintza-industriako eragileak ezagutzeko; bereziki, Gipuzkoako campusak.

Azkenik, San Frantziskoko Unibertsitatearekin, Kolonbiako Unibertsitate Panamerikarreko eta Bartzelonako Unibertsitateko ordezkariekin harremanetan egon gara.

La línea de trabajo de Desarrollo Educativo quiere establecer vínculos con el mundo universitario desarrollando un proyecto con unos rasgos diferenciadores únicos:

- > Ruptura del modelo tradicional de facultad, estableciendo un espacio que mezcla disciplinas en un mismo espacio.
- > Mestizaje con el ámbito laboral, asegurando la aplicabilidad de la enseñanza al entorno profesional.
- > Integración de experiencias y modelos de diferentes universidades y entidades educativas, tanto nacionales como internacionales.
- > Modelo de capacitación continua, asegurando la formación a lo largo de toda la vida profesional.

En septiembre de 2014, se ha incorporado la segunda promoción a los grados que se imparten en Orona Ideo, por Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (Mondragon Unibertsitatea), siendo la población estudiantil la siguiente:

Nombre Curso	Alumnos
1º Energía	52
2º Energía	49
1º Ecotecnologías	22
2º Ecotecnologías	18
Total general	141

A los cuales hay que añadir 20 alumnos que participan en el Master de Gestión de Proyectos.

Se ha tenido contacto con otras universidades o proyectos educativos, con la idea de desarrollar un conocimiento mutuo entre los agentes de la industria del conocimiento del entorno de ORONA. En especial con los distintos campus situados en Gipuzkoa.

También se han mantenido contactos con representantes de la University of San Francisco, la Universidad Panamericana de Colombia y la Universidad de Barcelona.



05.4

INGURUKOA (Orona Fundazioa Gizarterantz) I. Gizarterantz Foroa

ENTORNO (Orona Fundazioa Gizarterantz) Ier Foro Gizarterantz

Ingurua garatzeko lan-ildoak dago zuzenki errotuta tokiko gizartearen, haren garapena sustatzea baitu helburu, hainbat ikuspegitik:

- > Inguruan aberastasuna sortzen lagundu nahi du Orona Fundazioak, eta, horretarako, bere esperientzia profesionala ezagutarazten du, eta garatzen laguntzen die ekintzaile eta enpresei.
- > Kulturaren eta gizartearen garapena sustatu nahi du Orona Fundazioak, eta, horretarako, enpresaren interesak eta ingurukoak uztartzen ditu.
- > Ikasleei unibertsitate aurreko orientabide akademiko eta profesionalarekin lagundu nahi die Orona Fundazioak, eta, horretarako, beren gaitasunetatik probetxu handiagoa ateratzen laguntzen die.

Bidasaldeko, Oiartzualdeko eta Donostialdeko 102 eragilerekin elkarriketatu da Orona Fundazioa; tartean, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitate-mailako 41 ikastetxerekin.

Orain arte, hogeitabat ikastaro abiarazi ditugu eragile horiekin guztiekin elkarlanean.

Gizarterantz Foroaren lehenengo edizioaren aurretik, ekainaren 9an, aipatutako eskualdeetako alkateei aurkeztu genizkien proiektuok, lan-bilera batean. Hain zuzen ere, ekainaren 18an izan zen Foroaren lehenengo edizioa, eta hainbat erakundetako 35 ordezkariak parte hartu zuten.

**Bidasaldeko, Oiartzualdeko
eta Donostialdeko 102
eragilerekin elkarriketatu da
Orona Fundazioa.**

Orona Fundazioa se ha entrevistado con 102 agentes de las comarcas de Bidasoaldea, Oarsoaldea y Donostialdea.

La línea de trabajo de Desarrollo del Entorno es la que arraiga de forma más directa con la sociedad a nivel local, tratando de impulsar su desarrollo en varias dimensiones complementarias:

- > Contribuir a la creación de riqueza en su entorno, compartiendo su experiencia profesional y apoyando a emprendedores y a empresas en su desarrollo.
- > Apoyar el desarrollo de la cultura y de la sociedad, conciliando los intereses empresariales con las inquietudes de su entorno.
- > Apoyar a los estudiantes en su orientación académica y profesional antes del período universitario, ayudándoles a sacar mayor partido a su potencial.

Orona Fundazioa se ha entrevistado con 102 agentes de las comarcas de Bidasoaldea, Oarsoaldea y Donostialdea, siendo 41 de ellos centros educativos de Bachiller, Formación Profesional o Universidades.

En estos momentos una veintena de proyectos han sido materializados, o están en curso, de la mano y en colaboración de dichos agentes.

Estos proyectos fueron presentados, previamente a la celebración del I Foro Gizarterantz, en una reunión de trabajo a los alcaldes de las comarcas en cuestión, el día 9 de junio. El I Foro Gizarterantz se celebró, el día 18 de junio con la asistencia de 35 representantes de distintas entidades.

06

KUDEAKETA GESTIÓN

06.1

EKITALDIEN KUDEAKETA

GESTIÓN DE EVENTOS

Orona Ideo inguru hurbileko eragileen topaleku bihurtze aldera, honako hau egin dugu:

- > 306 bilera babestu ditu Orona Fundazioak.
- > 9.566 lagun izan dira edo parte hartu dute bilera horietan.


Fundazioaren helburuekin zerikusia duten ekitaldiak antolatzeaz gain, Orona Fundazioak, bilera eta ekitaldien esparruan, inguruko eragile, enpresa eta erakundeen eskaerei erantzuteko zerbitzuak eskaintzen ditu.

-

Con el objetivo de convertir el entorno físico de Orona Ideo en un punto de encuentro de los agentes del entorno más próximo, se han celebrado:

- > 306 reuniones celebradas amparadas por Orona Fundazioa.
- > 9.566 personas han visitado o asistido a dichas reuniones.

Además de los eventos relacionados con los fines fundacionales, Orona Fundazioa, desarrolla una pequeña actividad ofreciendo servicios en el ámbito de reuniones y eventos, respondiendo así a la demanda de agentes, empresas e instituciones del entorno.





2014an, Orona Fundazioak 113 eragile eta partnerri eman die Orona Ideo bisitatzeko aukera. Inguruneke mila pertsona baino gehiago erakarri ditu fundazioak.

Durante el año 2014 Fundación Orona ha posibilitado la visita a Orona Ideo de 113 agentes y partners atrayendo a más de un millar de personas del entorno.

06.2

BISITAK

VISITAS

2014an, Orona Fundazioak 113 eragile eta partnerri eman die Orona Ideo bisitatzeko aukera. Bisita batzuk etorkizunean elkarlanean aritzeko lehenengo harreman edo urratsak izan dira. Beste batzuk, berriz, taldeen bisitak izan dira (nagusiki, ikastetxeenak), eta Orona Ideoko berrikuntza-ekosistema bertatik bertara ezagutzea izan dute helburu.

Durante el año 2014 Fundación Orona ha posibilitado la visita a Orona Ideo de 113 agentes y partners. En algunos casos, estas visitas son primeros pasos y contactos de cara a futuras colaboraciones. En otros casos se trata de visitas de colectivos, principalmente centros educativos, que buscan conocer de primera mano el proyecto de ecosistema de innovación que representa Orona Ideo.

06.3

ATEAK ZABALTZEKO EGUNA 3.500 pertsona baino gehiago

PUERTAS ABIERTAS Más de 3.500 personas

Orona S. Coop. eta Electra Vitoria S. Coop. kooperatibetako bazkide eta langileei ateak zabaltzeko egunetan kultura- eta catering-gaiak antolatzen eta koordinatzen lagundu dugu.

Hain zuzen ere, maiatzaren 24a izan zen Orona kooperatibako bazkide, langile eta senideei ateak zabaltzeko eguna. Orduan, hainbat ekitaldi kultural antolatu genituen, eraikinen barnean zein kanpoan:

- > Ugarte Anaiak Txalaparta Elkartea (Urnieta).
- > Ertizka Otxotea (Añorga).
- > Alkartasuna Euskal Dantza Taldea (Pasai Antxo).
- > Ametsa Gazte Abesbatza (Irun).
- > Aire Aire Trikitixa Taldea (Astigarraga).
- > Ozenki Abesbatza (Hernani).
- > Africa LoLoBatukada Perkusio Taldea (Bilbo).
- > Anonimuss Hari Laukotea (Donostia).
- > Bengoa Musika Girotzea (Donostia), Lastaolan.

-

Por otro lado, ha gestionado la coordinación de los aspectos culturales y de catering de las jornadas de puertas abiertas para socios y trabajadores de Orona S. Coop., y de Electra Vitoria S. Coop.

Especialmente, en la jornada del 24 de mayo se celebró la Jornada de Puertas Abiertas para socios, trabajadores y familiares de Orona S. Coop. en la que se configuraron diversos puntos culturales tanto en el interior de los edificios, como externos:


- > Txalaparta Ugarte Anaiak, (Urnieta).
- > Ertizka Otxotea - (Añorga).
- > Alkartasuna Euskal Dantza Taldea, (Pasajes Ancho).
- > Coro Ametsa Gazte Abesbatza, (Irún).
- > Aire Aire Trikitixa, (Astigarraga).
- > Osenki Abesbatza,(Hernani).
- > Percusión Africa LoLoBatukada, (Bilbao).
- > Cuarteto de Cuerda Anonimuss, (Donostia).
- > Ambientación musical Bengoa, en Lastaola (Donostia).





**Maiatzaren 24a izan zen
Orona Kooperatibako bazkide,
langile eta senideei atea
zabaltzeko eguna.**

La jornada del 24 de mayo se celebró
la Jornada de Puertas Abiertas para
socios, trabajadores y familiares de
Orona S. Coop.



06.4

KANTINA

CANTINA

Apirilaren hasieran ireki zuen Gure Elikagai SL enpresak Diametro 200 jatetxea, ORONaren emakida bidez, eta, orduetik, 30.000 jatetxe-eta kafetegi-zerbitzu eman ditu.

Guztira, batez beste, **eguneko 163 otordu** eman ditugu.

Gure Elikagai-k otordu horiek guztiak emateko erositako lehengaiei dagokienez, hona hemen banaketa:

- > Produktu ekologikoak: guztizkoaren % 13,6.
- > Tokiko produktuak: guztizkoaren % 61,3.

-

Tras la apertura del Restaurante Diámetro 200 mediante la concesión por parte de ORONA a la empresa Gure Elikagai SL, desde primeros de abril, se han suministrado aproximadamente 30.000 servicios.

En conjunto, supone un nivel medio de actividad de **163 comidas diarias**.

Para el suministro de estas comidas, respecto del volumen total de compras de materias primas, por parte de Gure Elikagai se ha concretado en:

- > Productos Ecológicos: 13,6 % del total.
- > Género de Producción Local: 61,3 % del total.





06.5
ERAKUNDE ARTEKO
HARREMANAK
RELACIONES
INSTITUCIONALES

Zuzendaritza Nagusiari laguntzeko, Fundazioaren izaeraren beraren ondorioz, erakunde-eragileekin harremanetan egon gara egunerokoan, Zuzendaritzak koordinatuta.

-

En apoyo a la Dirección General y como consecuencia de la propia naturaleza de una fundación, en el día a día se han mantenido una serie de contactos con agentes institucionales, bajo la coordinación de la susodicha Dirección.

07

PROIEKTUAK ETA JARDUEREN EGUTEGIA PROYECTOS Y CALENDARIO DE ACTIVIDADES

Hainbat proiektu ditugu abian, eta gehienak bat datoz Gizarterantz proiektuarekin. Gainera, jarduera ere bihurtu dira zenbait. Hona hemen laburpen-grafikoa:

